

## Arantzabela Ikastolan margoketa homofoboak

Gasteizko Arantzabela Ikastolan asteburuan egindako pintada homofoboek dagokienez, **Ikusgune. Gasteizko LGTBI+fobiaren aurkako Behatokiak laguntza osoa bidali nahi dio ikastetxeko hezkuntza-komunitate osoari, batez ere bertako kide diren LGTBI+ pertsonari.** Ikusgunek gertakaria erregistratu du eta Ikastolaren esku jarri da behar duten guztirako.

Ez dira ezagutzen ditugun lehenengo margoketak, ezta horma-irudiak erasotuta esnatzen den lehenengo Ikastola ere. Ikasgeletan sexu eta genero aniztasuna ikusarazteko ahaleginak jopuntu bilakatu dira zishetero arauaz haratago bizi eta harremantzea erreprimitu eta ukatu nahi dutenentzat.

Larritasunez ikusten dugu gertatutakoa; izan ere, pintada horien bidez, egileek mezu bat helarazi nahi izan diote LGTBI+ kolektiboari, eta are larriagoa da hori hezkuntza-zentroetan gertatzen bada, mezu horiek bertara joaten diren haurrei helarazten saiatuz.

Gasteizek azken hilabeteetan erakutsi du ez dagoela prest bere kaleetan gorrotoa onartzeko, Salaketa soziala ezinbestekoa da gorroto-diskurtsoei aurre egiteko. **Gasteiztarrak horrelako erasoan aurka agertzera gonbidatzen ditugu, LGTBI+ eta trans banderak ikusaraziz beren leihoetan, jaken hegaletan, udalerriko ikur bihurtu diren oihalezko poltsetan, nahi dituzten une eta espazio guztietan eta eskura dituzten objektu guztietan.** Denon artean egin diezaiokegu aurre gorrotoari.

## Pintadas homofobas en la Ikastola Arantzabela

En relación a las pintadas homofobas realizadas durante el fin de semana en la Ikastola Arantzabela de Vitoria-Gasteiz, **Ikusgune. Observatorio contra la LGTBI+fobia de Vitoria-Gasteiz quiere mandar todo su apoyo a toda la comunidad educativa del centro, especialmente a aquellas personas LGTBI+ que forman parte de la misma.** Ikusgune ha registrado la incidencia y se pone a disposición de la Ikastola para todo aquello que precisen.

No son ni las primeras pintadas que conocemos, ni la primera Ikastola que despierta con sus murales atacados. Los esfuerzos por visibilizar la diversidad sexo-genérica en las aulas, unos espacios que han sido especialmente hostiles contra el colectivo LGTBI+, son un objetivo para quienes quieren reprimir y negar otras formas de vivir y de relacionarse más allá de la norma cisheterosexual.

Vemos con gravedad lo ocurrido porque a través de esas pintadas, sus autores o autoras han pretendido lanzar un mensaje al colectivo LGTBI+, y es más grave todavía si esto ocurre en espacios como centros de educación, intentando trasladar estos mensajes a las criaturas que acuden al mismo.

Los y las gasteiztarras ha demostrado en los últimos meses que no esta dispuesta ha aceptar el odio en sus calles, contra ninguno de sus vecinos y vecinas. La denuncia social es imprescindible para hacer frente a los discursos de odio. **Invitamos a la ciudadanía a mostrar el rechazo a este tipo de agresiones visibilizando las banderas LGTBI+ y trans en sus ventanas, en las solapas de las chaquetas, en las bolsas de tela que se han convertido ya en un símbolo del municipio, en todos los momentos y espacios que quieran y con todos los objetos que tengan a su disposición.** Entre todas podemos hacer frente al odio.